

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresa aurrera eramateko eta etekinak maximizatzeko, hainbat faktore kontuan izan behar dira. Horregatik bazkideak nortzuk diren argi eta garbi izan behar dugu (haien zeregina ondo zehaztuta izanik), eta hornitzaile egokiak bilatu egin behar ditugu.

Hasi gaitezen **bazkideengandik**:

Enpresa honetako bazkideak gu laurok izango gara (Leire, Sandra, Xabi eta Sergio). Bazkide kapitalistak (kapitala jarri dugulako) eta profesionalak (enpresan bertan lan egingo dugulako) izango gara. Hasiera batean gu laurok izango gara, baina enpresa ondo joatekotan eta gure negozioaren hazkunderan kontuan hartuz izan daiteke etorkizunean bazkide edo inbertitzaile gehiago bilatu behar, baina momentuz gaudenekin nahikoa litzateke. Hasiera batean hauek izango lirateke bazkide bakoitzaren zereginak

- ✓ Sandra: Bezeroei arreta eta kontabilitatea.
- ✓ Sergio: web-orria eta sare sozialen mantenua
- ✓ Leire: Bezeroei arreta.
- ✓ Xabier: Informatika ikastaroak kudeatu eta eman.

Bazkideak ondo zehaztea oso garrantzitsua da. Hainbat enpresa itxi egiten dira bazkideen artean sortzen diren arazoengatik. Beraz, argi eta garbi utzi behar da bazkide bakoitzak dituen zereginak eta zein den enpresaren misioa eta haren helburuak. Bazkide bakoitzak, hasieran, 2.000 €ko kapitala jarriko enpresa sortzeko.

Hornitzaileak ondo aukeratzea funtsezko lana pentsatzen dugu. Horretarako faktore ekonomiko edo kalitatezko faktoreak kontuan hartu behar ditugu. Guk prezio baxuak dituen kalitate oneko produktuak saltzen dituen hornitzailea topatzen saiatuko gara, baina horretaz gain, hornidura-epe laburra, ordaintzeko erraztasunak edota bezeroekiko arreta zerbitzu ona duena nahi dugu. Hornitzaileen artean ondorengoak topa ditzakegu:

- ✓ Infortisa enpresa (www.infortisa.com). Honek garraioa ez digu kobratzen eta ordaintzeko modu ezberdinak eskaintzen ditu (banku transakzioa, produktuak jasotzean...)
- ✓ Zamudion kokatua dagoen RPM mayoristas informáticos enpresa.

Hornitzailea ondo aukeratzea ere funtsezko lan bat da enpresarentzat. Oso harreman estua izango dugu gure hornitzaileekin eta ezin digute kale egin. Beraiekin arazoak izatekotan, stock-haustura bat gerta daiteke eta gure zerbitzuarekin aurrera ezin jarraitu.